

Jose Rocandio'rekin

Zehatz-zehatz ez nuke jakingo esaten Jose Rocandiok Donostiako Alfonso VIII kalean irekitzen zuen estudio/tailerrak noiztik ematen zidan atenzioa. Eta ez nuke asmatuko ezta doi-doi noiz izan zen berorren atalburuaren azpitik lehenengo aldiz pasa nintzeneko eguna ere, jadanik badira eta hainbat urte hori gertatu zela. Hala ere, nola batak hala besteak ez dute hainbeste garrantzirik, zeren eta, hori bai, esan bait dezaket beti halako atseginez gogoratu izan dudala Rocandioren lantokira maiz joan izana, zeren berri ikusi hutsarekin artista eta artisaua pertsona bat berean biltzen zireneko denbora haietara jotzen bait du hegan nire irudimenak. Eta hori diot, Rocandiorengan bai ofiziodunaren trebetasuna eta bai artistaren inspirazio krea-tzailea biak batera eman izan direlako hain zuzen, ongi aski egiaztatu izan den bezala.


Maisu honen estudio/tailerra zabala zen eta leihate eder batek argitua. Errestauratu beharreko oihalen eta antentzioa eskatzen zuen eskultur pieza elbarriaren artean, gauza bat nabarmentzen zen bereziki: tripak ateratako erloju baten zurezko kaxa luze bat hain zuzen. Berak batere nahi gabe, eskolarik desberdinetako artelaren erakusketa iraunkor eta aberats bat edukitzen zuen Rocandiok.

Lokalaren hondoan, artisautzako saila izenarekin bataiatuko nukeenean, tamaina eta estilo desberdinetako hainbat marko ikusten genituen, bakoi-tzari zegokion oihala apaintzera destinatua.

Rocandioren estudioa, ordea, giza faktorearengatik bereizten zen oso bereziki, nire laguna hornitzen duten koalitate paregabeen projekzio amoltsuaren islada bizia bailitzan. Leihoaren ondoan, eta astokoaren aurrean eserita, jadanik erdi bukatua zuen lanean murgildua harrapatzen genuen pintorea, eta paleta eta pintzela bertan beheara uztea besterik ez zitzaion bururatzen bere xalotasun eta naturaltasunaren elegantziarekin bostekoa luzatzeko. Bere begirada distiratsuarekin eta aurreko botoiak zituen betiko bata edo hauts-babesarekin, beti berdina izaten zen Rocandioren harrera, adeitsua eta goxoa alegia.

Artista honen pintura fina eta delikatua, kutsatzeko moduan bare eta narea da. Sarritan bere pintzela benetan irakasle bezala agertzen da, gure iraganaren arloan bereziki. Zentzu honetan, *Tolosa atzo* izenarekin Gipuzkoako aintzinako hiriburuan 1981. urtearen hastapenetan *Gure Kayola* sozietatean egin zen erakusketan ezagutzeko aukera izan nuen Rocandioren obran, benetan atsegingarria gertatu zen niretzat herriko txoko iradokor haiek berriro nire baitan bizitzea.

Lerro hauei bukaera ematera noa; baina oraingo honetan neu izango naiz Jose Rocandioren eskua bosteko leial eta bihozkor batean estutzera aurreratu dena.



Con José Rocandio = Jose Rocandio'rekin / Juan Garmendia Larrañaga. - En : *José Rocandio: artista, pintore eta errestituzatzaile* = artista, pintor, restaurador. - San Sebastián : Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1984. - 141 p. : il. ; 22 cm. - P. 83-90